



Munduko Arrozak 09 09 Arroces del mundo Mundua gure auzotan

2009ko uztailak 4an

Eskoriaza Eskibel enparantzan

Izen ematea Ekainak 26arte:

El 70n	Saregunen
Kutxi 60	Bueno Monreal 22
945 202 526	945 039 982

Lagun agurgarriak,

Urte honetan baita, uztailak 4an MUNDUKO ARROZAK 09 ARROCES DEL MUNDO partehartzen gonbidatzen zaituztegu. Haurten, **talde eta auzokide batzuek**, Zaharraz Harro antolatu dugun jaien barne, Eskoriaza Eskibel enparantzan ospatuko dugu gai nagusizat arroza izango duen aldarrikapen, kulturen arteko eta jai giroko gastronomi lehiaketa batean parte har dezazuen.

Antolatzaileen esku geratzen da herri bazkarirako mahaiak eta aulkiak jartzea. Aurreko urtean izan zuen arrakasta ikusita, gutxi gorabehera zenbaterik hartuko duen parte aurretik jakin nahiko genuke; baita lehiaketan parte hartu nahi duten taldeak ere. Horretarako **eman izena ekainak 26 baino lehen**. Nahiz eta parte hartzaileek – bai taldeka bai lagun soil- giroa berotzen laguntzea izango litzatekeen onena, fanfare, perkusio talde eta abarren kolaborazioa ere bilatuko da. Hori dela **tailer, animazio, saio... ekar dezaketen kultur eta gizarte talde, artista eta abarri dei egiten diegu** eskuko egitarauan ipini ditzagun.

Ordutegi orokorra

- 11.30 etan. Azkenengo izen ematea eta banaketa.
 - 12.00 etan. Mural kooperatiboa (Verónica Werckmeister, Mila Bretón, Javier Hernández Landazabal, Gonzalez Oribe, Brenan duarte). Capoeira eta Amazoniako dantzen tailerrak. Eskulanen tailerrak.
 - 14.00 etan. **Arrozen prestaketa.**
 - 16.00 etan. **Arrozak prest egoteko ordua.** Herri animazioko ekimenak. Donnay Abesbatza | Harresian Zulo | Dantza afrikarrak (Aicha eta Djelia Taama Musoo) | Alejandro Kayaman Mejicana Clandestinako abeztiak | Daniel Carceño | Soul Flavas | Claudia Pizarro Morales | Kirius
- etab. (eman zure izena)**

Jardueraren helburuak

- Gure kaleak aldarrikatu, okupatu, berreskuratu.** Gure auzoetan egunero bizi ditugun arazoaren aurrean, herri kultura bultzatuko duten proposamen irudimentsuak –ez erakusleihokoak- abiapuntu, eta bizikidetzaren aldeko lana eta aniztasunari begirunea oinarri, guztien gozamenarako aldarrikatzen ditugu gure kaleak.
- Ez gehiago gu gabeko auzorik.** Instituzioek uzten ez badigute ere, parte hartu nahi dugu. Auzoak gureak dira. Egundero hor bizi direnak, historian zehar auzoak hobetzeko borrokatu direnak, hemen jaio direnak eta heldu berri direnak. Guztiok, andre eta gizon, parte hartu nahi dugu berrikuntzan, heziketan, hiriko eta gizarteko bizitzan... Hori baita gure bizitza eta bizi dugun barrutia.
- Kulturen arteko nahasketa jai bihurtu.** Gure auzoetan bizi dugun kulturen arteko errealitatea aukera bezala bizitzea da gure proposamena. Elkarren arteko txertaketa eta bizikidetzaren alde egiten dugu apustu. Baina hau bera ere jai giroan egiten dugu, badakigulako, aldarrikapenak eta buruhausteak ahaztu gabe, jaiak batu egiten gaituela eta egunero elkarren artean daramagun bizitza normaleko esparrua erakutsi. Areago, jaiak, gure kulturen arteko ezberdintasuna asmo bateratura ekartzen du; hau da, auzo gizakoiagoak, bizitzeko egokiagoak, solidarioagoak eta borrokalariak sustatzera bultzatzen gaitu.
- Senitarteko auzoak.** Gure auzoak eta gure kezkek ez doaz bananduak.

Eta guzti honetara gonbidatzen zaituztegu, animatu eta parte hartu